



MANIFESTUA

Long CoVID Euskal Herria Elkarte

Nor gara

Long CoVIDa dugun pertsonak gara.

2020az geroztik, SARS-CoV-2 infekzioaren ondoren, pertsona askok ez dugu osasuna berreskuratu. Hasieran gaixotasun akutua izan zena, kasu askotan, gaixotasun kroniko, multisistemiko eta desgaitzaile bihurtu da, eta eragin sakona du eguneroko bizitzan, autonomia pertsonalean, lanerako gaitasunean eta hezkuntza-garapenean.

Gaur egun, gainera, oraindik gaixo gaude.

Partzialki aitortutako baina behar bezala artatu gabeko gaixotasuna

Long CoVIDa nazioarteko erakundeek definitu dute eta maila instituzionalean aitortua izan da. Hala ere, aitortza hori ez da beharrezko erantzun sanitario, sozial eta administratiboan islatu. Pandemiaren lehen uneetan eta lehen olatuan, pertsona askok ez zuten proba diagnostikoetara sarbiderik izan, osasun-sistemaren kolapsoaren ondorioz. Beste batzuek beranduago egin zituzten, askotan detekzio-epea igaro ondoren, eta, ondorioz, ezin izan zen infekzioa baieztatu, nahiz eta sintomek jarraitu.

Gaur egun, gainera, beste egoera bat sortu da: neurri handi batean desagertu dira kasuen detekzio, jarraipen eta erregistro sistemak, arazoa desagertu delako uste okerraren ondorioz. Horregatik, ez dago errealitate bakarra, baizik eta gaur egun batera bizi diren hainbat errealitate, eta guztiak baldintza beretan aitortu behar dira.

Gaur egungo ebidentzia zientifikoa (2023–2026)

Azken urteotan, nazioarteko ikerketak nabarmen egin du aurrera. Gaur egun, Long CoVIDean hainbat mekanismo identifikatu dira, besteak beste:

- Birusa ehunetako erreserba-guneetan irautea
- Immunitate-sistemaren disfuntzioa eta autoimmunitatea
- Hanturazko egoera kronikoa
- Aldaketa baskular eta endotelialak
- Mikrooadroak eta perfusioaren alterazioak
- Disfuntzio mitokondrialak eta metabolikoa
- Nerbio-sistemaren afekzioa eta neurohantura
- Disautonomia

Aurkikuntza horiek guztiek baieztatzen dute Long CoVID gaixotasun multisistemikoa eta organo anitzekoa dela.

Osasun-arreta: aurrerapen eskasak

2025eko otsailean, kontsulta espezifiko bat jarri zen martxan Basurtuko Ospitalean (Bizkaia), urteetako aldarrikapenen ondoren.

Aurrerapen honek erakusten du kaltetuen mobilizazioak eragina duela.

Hala ere, gaur egungo arreta-sistemak gabezia handiak ditu oraindik.

Ez dago benetako sare multidiziplinarrik, ez eskuragarritasun bermaturik, ezta Long CoVID gaixotasun kroniko gisa artatzeko ibilbide argirik ere.

Bizitzan duen eragina eta aitortza falta

Long CoVIDak zuzenean eta sakon eragiten dio gaitasun funtzionalari:

- Nekea fisiko eta mentala larria, eta esfortzu ondorengo ondoreza fisiko eta mentala (PEM)
- Narriadura kognitiboa
- Afekzio multiorganikoa
- Eguneroko bizitzan muga larriak

Hautzaroa, nerabezaroa eta hezkuntza

Long CoVIDak haur eta nerabeei ere eragiten die.

Beharrezkoa da bermatzea:

- Hezkuntza-egokitzapen malguak
- Eskolaratze eredu hibridoak, beharrezkoa denean
- Gaitasun-mugen aitortza
- Hezkuntza-sisteman protokolo espezifikoak

Prebentzioa: oraindik beharrezkoa

Prebentzioa funtsezkoa da oraindik ere biztanleria osoarentzat.

Long CoVIDean, infekzioak eta berrinfekzioak murriztea giltzarria da.

Berrinfekzioek kalte metatua eragiten dute eta gaixoen egoera okertzen dute.

Gure eskariak

- Long CoVIDa benetan sartzea gaixotasun kronikoen zirkuituan, den bezala: gaixotasun kroniko eta desgaitzailea
- Diagnostiko-kode espezifikoak benetan aplikatzea
- Protokolo kliniko bateratu eta eguneratuak
- Diziplina anitzeko unitate errealeen garapena
- Osasun-langileen derrigorrezko prestakuntza
- Proba diagnostiko aurreratuetarako sarbidea
- Desgaitasunaren balorazio egokia eta lanerako ezintasun iraunkorraren aitortza
- Lan- eta hezkuntza-eremuan egokitzapenak
- Haur eta nerabeentzako protokolo espezifikoak
- Prebentzio-politiken indartzea
- Ikerketa sustatzea eta emaitzen aplikazio klinikoak

Long CoVIDa CoVID-19aren forma kronikoa da.

Ez da gaixotasun arnasketa hutsekoa. Gaixotasun multisistemiko eta konplexua da, desgaitasun maila anitz sortzen duena eta lanerako zein eguneroko bizitzarako ezintasunak eragiten dituena.

MANIFESTARI ERANTSITAKO ERANSKINAK

1. eranskina – Long CoVIDari buruzko ebidentzia zientifikoa

Birusa ehunetako erreserba-guneetan irautea
SARS-CoV-2 birusa hainbat ehunetan gera daiteke, fase akutoa amaitu ondoren ere.
Horrek sintoma kronikoak, berraktibazioak eta neke luzea azaltzen ditu.

Alterazio immunologikoak eta autoimmunitatea
IgM/IgG mailen alterazio iraunkorra, gammapatiak.
Autoimmunitatea: patogeno latentekiko antigorputzak (Epstein-Barr, Toxoplasma).
Zitokinen desoreka: IL-4, IL-6, IL-13, TNF- α .

Hanturazko egoera kronikoa eta kalte multiorganikoa
Mikrotromboak, disfuntzio endoteliala, ehunen hipoperfusioa.
Alterazio metaboliko eta mitokondrialak, neke fisiko eta neurologikoarekin lotuta.

Sintomatologia iraunkorra
Neke fisiko eta mentala larria, esfortzu ondorengo ondoeza (PEM), narriadura kognitiboa, afekzio multisistemikoa.

Beste aurkikuntza garrantzitsu batzuk
Exosomak: seinale inflamatorioak garraiatzen dituzten egiturak, sintoma kronikoak mantentzen lagun dezaketenak.

Disfuntzio neurobaskularra eta disautonomia

2. eranskina – Proba diagnostikoak eta jarraipena

Zitokinen panelak → IL-4, IL-6, IL-13, TNF- α , IFN- γ
Autoimmunitate-markatzaileak → SARS-CoV-2, Epstein-Barr, Toxoplasma gondii eta beste patogeno latentekiko antigorputzak
Linfotoen azpipopulazioak → CD4, CD8, NK, B, Treg
Funtzio mitokondrial eta metabolikoaren probak → laktatoa, esfortzu ondorengo azidosi laktikoa, bioenergetika zelularra
Koagulazio eta perfusio markatzaileak → D-dimeroa, fibrinogenoa, mikrotromboen azterketa
Exosomak → zirkulazioan dauden exosomen ebaluazioa
Ebaluazio neurokognitiboa eta neuropsikologikoa

Funtsezkoa da narriadura kognitiboa eta neke neurologikoa identifikatzeko.

Esfortzu-probak (PEM)

Ohiko probek ez dute PEMa islatzen.

Ebaluazio espezifikoa beharrezkoa da.

Maiz baztertzin diren markatzaileak

Gammapatiak, D-dimeroa, fibrinogenoa, PCR...

Askotan ez dira kontuan hartzen.

Jarraipen eta baheketa eskasak

Ez da baheketa sistematikorik egiten.

Gutxi bideratzen dira espezialitateetara.

Funtsezko espezialitateetarako sarbidea

Hematologia, immunologia, erreumatologia, infekziosoak

3. eranskina – Ukapenaren eta jarraipen eskasaren ondorioak

Alta goiztiarrak eta jarraipen falta

Pertsona askok alta jasotzen dute jarraipenik gabe.

Desgaitasun maila anitz

Funtzio fisiko, kognitibo eta emozionalak batera kaltetzen dira.

Lanerako eta hezkuntzarako ezintasunak

Ezintasun iraunkorra askotan ez da aitortzen.

Narriadura progresiboa eta berrinfekzioen eragina

Infekzio berriek egoera okertzen dute.

Datuen integrazio falta

Emaitzak ez dira modu globalean aztertzen.

Arreta multidiziplinarraren beharra

Ez dira nahikoak kontsulta isolatuak.

Beharrezkoa da zirkuitu bateratua.

Laburpena

1. eranskina → ebidentzia multisistemikoa, immunologikoa eta metabolikoa
2. eranskina → proba diagnostikoak eta ebaluazio osoa
3. eranskina → ondorioak, desgaitasuna eta arreta-sistemaren gabeziak

Harremanetarako datuak

Long CoVID Euskal Herria Elkarte

Lehendakaria: Isabelle Delgado

lceuskalherria@gmail.com

www.longcovid-euskalherria.eus